



**Sexualitatea eta afektibitatea  
atzerapena duten pertsonengan**

**JOKAERA-JARRAIBIDEAK**

**Sexualidad y afectividad  
en personas con deficiencia**  
**PAUTAS DE ACTUACIÓN**

**Javier Gómez Zapiain**

Laguntzailea  
Colabora



**gizarte ekintza  
obra social**

Copyright: ATZEGI

Javier Gómez Zapiain

Argitaratzailea-Edición: ATZEGI

Okendo, 6 behe. 2004 Donostia

Tel.: 943 42 39 42

[www.atzegi.org](http://www.atzegi.org)

[asociados@atzegi.org](mailto:asociados@atzegi.org)


Irudiak-Ilustraciones: Julen Gómez Lope

Diseinua-Diseño: Lovader

**Sexualitatea eta afektibitatea  
atzerapena duten pertsonengan  
JOKAERA-JARRAIBIDEAK**

**Sexualidad y afectividad  
en personas con deficiencia  
PAUTAS DE ACTUACIÓN**

**Javier Gómez Zapiain**



# Atzegi

**ATZEGI** bere kideen beharrei erantzuten saiatzen da eta, "**AFEKTIBITEA ETA SEXUALITATEA ATZERAPENA DUTEN PERTSONENGAN**" gaiari dagokionez, esku-hartzeko eskakizunak heltzen zaizkigu noizean behin. Maiz sumatzen dugu eskaera horiek kanpotik heldutako konponbide magikoak espero dituztela, nahiz eta erantzuna, beti, gure jarreran eta arazoei aurre egiteko dugun moduan egon, baita horretarako hartzen eta ematen dugun prestakuntzaren baitan ere. Horren uste osoa dugunez, **ATZEGI**ko kide diren guraso talde bat bildu genuen, adimen-atzerapena duten seme-alaben sexualitateari, horien sentimenduei eta alor horretan etorkizunera begira zituzten asmoei buruzko gogoeta egin zezaten.

Esku artean duzuen argitalpena **Javier Gómez Zapiain** psikologoak zuzendutako bileren emaitza da. Bereziki eskertu nahi diogu **Kany Peñalba Ceberio**k sustatu eta koordinatu dituen bileretan eskaini digun laguntza. Bilera horietan honako guraso hauek hartu dute parte:

**Arantxa Arrizabalaga**  
**M<sup>a</sup> Carmen Castro**  
**Begoña de Miguel**  
**Inma Hernandez**  
**Karmele Laurenzena**  
**José Luis López Rico**

**Eduardo Manzano**  
**Charo Martínez**  
**Fátima Martínez**  
**Karmele Mitxelena**  
**Ladi Olaizola**

Horiei guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu eta, **ATZEGI**n nagusi den izaera solidarioa egia bihurtuz, horien ekarpenak beste pertsona askorentzat lagungarri izatea espero dugu.

Prozesu osoan zehar **ATZEGI-UPV** lankidetzaren ekimenaren baitako bekadun izan den **Ainhoa Durá Anabitarteri** ere eskertu nahi diogu eginiko lana. Eskerrak eman nahi dizkiogu, halaber, bere lanaren truke ezer eskatu gabe testuei bizitasuna eman dieten rudiak egin dituen **Julen Gómez López**ri.

**Mila esker guztiei.**

**ATZEGI**  
**2004ko urria**

**ATZEGI** intenta dar respuesta a las necesidades de sus asociados, y en el tema de la "**AFECTIVIDAD Y SEXUALIDAD EN PERSONAS CON DEFICIENCIA MENTAL**" cíclicamente se nos presenta una demanda de intervención. En ocasiones percibimos que dicha demanda espera unas pautas mágicas desde el exterior, cuando la respuesta está siempre en nuestra actitud y en nuestra manera de afrontar los problemas, así como en la preparación que adquiramos y demos para ello. Este convencimiento nos animó a convocar a un grupo de padres y madres, asociados en **ATZEGI**, que estuvieran dispuestos a reflexionar sobre la sexualidad de sus hijos con discapacidad mental, sobre sus sentimientos y sobre los planes de futuro que tenían para ellos en este aspecto.

La publicación que tenéis entre las manos es el resultado de las reuniones que ha dirigido el psicólogo **Javier Gómez Zapiain**, a quien agradecemos especialmente su colaboración, que ha promovido y coordinado **Kany Peñalba Ceberio** y en las que han participado las siguientes madres y padres:

**Arantxa Arrizabalaga**  
**M<sup>a</sup> Carmen Castro**  
**Begoña de Miguel**  
**Inma Hernandez**  
**Karmele Laurenzena**  
**José Luis López Rico**

**Eduardo Manzano**  
**Charo Martínez**  
**Fátima Martínez**  
**Karmele Mitxelena**  
**Ladi Olaizola**

A todos ellos les damos las gracias y confiamos en que esta aportación será muy valiosa para otras personas, haciendo así realidad el espíritu solidario que existe en **ATZEGI**.

Además nuestro agradecimiento a **Ainhoa Durá Anabitarte** que ha llevado a cabo su trabajo de becaria en la colaboración **ATZEGI-UPV** a lo largo de todo el proceso.

Y a **Julen Gómez López** que de forma desinteresada ha elaborado las ilustraciones que dan viveza a los textos.

**A todos muchas gracias.**

**ATZEGI**  
**Octubre 2004**

# Aurkibidea

- 6 ■ ■ Zer da afektibitatea?
- 10 ■ ■ Zein dira pertsonen oinarrizko beharrak?
- 12 ■ ■ Zer da sexualitatea?
- 14 ■ ■ Zer da heziketa afektibo-sexuala?
- 16 ■ ■ Nola lagundu seme-alabei?
- 22 ■ ■ Zein dira kezka nagusiak?
- 34 ■ ■ Heziketa afektibo-sexualaren ikuspegia
- 46 ■ ■ Eskubideak eta betekizunak
- 46 ■ ■ Zer egin?
  - . Sexu-harreman partekatuen hasiera
  - . Eraso edo abusu sexuala
  - . Basketomia
  - . Antzutea
- 57 ■ ■ Bibliografia
- 58 ■ ■ Gipuzkoako telefono interesgarriak

# Índice

- 7 ■ ■ ¿Qué es la afectividad?**
  
- 11 ■ ■ ¿Cuáles son las necesidades básicas de las personas?**
  
- 13 ■ ■ ¿Qué es la sexualidad?**
  
- 15 ■ ■ ¿Qué es la educación afectivo-sexual?**
  
- 17 ■ ■ Como ayudar a nuestros hijos/as**
  
- 23 ■ ■ ¿Cuáles son las principales preocupaciones?**
  
- 35 ■ ■ Perspectiva de la educación afectivo-sexual**
  
- 47 ■ ■ Derechos y deberes**
  
- 47 ■ ■ Qué hacer en caso de:**
  - . Inicio de relaciones sexuales compartidas
  - . Agresión o abuso sexual
  - . Vasectomía
  - . Esterilización
  
- 57 ■ ■ Bibliografía**
  
- 59 ■ ■ Teléfonos de interés de Gipuzkoa**

# S Sexua eta Afektua

## Zer da afektibitatea?

Giza-esperientziari dagozkion afektu, sentimendu eta emozioen multzoa har dezakegu afektibatetzat, hala nola maitasuna, maitemina, maitazarrea, samurtasuna, erotismoa, atxikimendua, intimitate-sentimendua, etab. Beste mota bateko afektuak ere aipa litezke, esate baterako erruduntasun-sentimendua, lotsa, beldurra, amorrua, gorrotoa, etab.

Afektibitatearen alorrean, interesgarria da **atxikimendu afektiboa deiturikoaren garrantzia nabarmentzea**. Laburbilduz, honakoa esan genezake:

Ahul eta biziraupen-gaitasunik gabe jaiotzen gara pertsonak. Munduratu orduko zainketa egokirik jasoko ez balu, hil egingo litzateke jaioberria. Haurtxoak, hortaz, zaintzen duenari atxikitze joera du jaiotzen denetik. Pertsona hori, normalean, ama edota horren egitekoak betetzen dituen beste edozein pertsona izan ohi da. "Atxikimendu-irudia" deritzaio. Aitek ere jokatu behar dute seme-alaben hazkuntzan dagokien rola. Umetxoaren eta zaintzailearen artean sortzen den harreman berezi horri deitzen diogu, hain zuzen, atxikimendu afektiboa.

Bizitzaren lehen uneetan sortzen den atxikimendu afektiboak bizitza osorako ditu ondorio garrantzitsuak. Harreman oso berezia sortzen da, alegia, umetxoaren eta atxikimendu-irudiaren artean. Honela sortzen da lotura hori: atxikimendu-irudiak (normalean, amak) egokiro interpretatzen ditu haurtxoaren beharrak, eta horien arabera jarduten du, umea zainduz. Era askotakoak izan daitezke erantzun egokia behar duten beharrak: urduritasuna, beldurra, su-

# S Sexo y Afecto

## ¿Qué es la afectividad?

Por afectividad entendemos el conjunto de afectos, sentimientos y emociones propios de la experiencia humana, tales como el amor, el enamoramiento, el cariño, la ternura, el erotismo, el apego, el sentimiento de intimidad, etc. También existirían otros afectos, como el sentimiento de culpa, la vergüenza, el miedo, la rabia, el odio, etc.

En el ámbito de la afectividad, **es interesante señalar la importancia de lo que se conoce como vinculación afectiva**. En síntesis podemos decir:

Las personas nacemos muy vulnerables, sin capacidad de supervivencia. El bebé moriría si no se le atendiese desde el primer momento. El bebé, por tanto, nace predispuesto a aferrarse a la persona que le atiende, que le cuida. Esta persona generalmente es la madre o cualquiera otra que cumpla sus funciones. Se le llama "figura de apego". Los padres también deben jugar el papel que les corresponde en la crianza de los hijos. A esta relación especial que se produce entre el bebé y su cuidador, la llamamos vinculación afectiva.

La vinculación afectiva que se produce en los primeros momentos de la existencia, tiene unas consecuencias muy importantes para el resto de la vida. Se establece una relación muy especial entre el bebé y la figura de apego. La relación se produce de la siguiente manera: La figura de apego (generalmente la madre) interpreta adecuadamente las necesidades del bebé y actúa en consecuencia, ofreciéndole sus cuidados. Estas necesidades pueden

minkortasuna, gosea, mina, segurtasun-gabezia... Atxikimendu-irudiak ondo ezagutu behar ditu haurtxoak bere eskakizunak bideratzeko erabiltzen dituen seinaleak, horien arabera jokatzuz zainketa egokiak eskaini ahal izateko. Ikus dezakegunez, harreman honetan umetxoa da "zaindua" eta atxikimendu-irudia, berriz, "zaintzailea".

Psikologiaren ikuspegitik, hasiera-hasierako harreman hori oso garrantzitsua da, une horretan sortzen baita geroko garapenerako, mundua esploratzeko eta nork bere autonomia lortzeko beharrezkoa den "oinarrizko segurtasuna".

Arretaz erreparatzen badiogu, haurtxoaren eta atxikimendu-irudiaren arteko harremana maitasuntzat hartzen dugunaren prototipoa dela ikusiko dugu. Maitatzea, finean, zaintzea da. Haurtzaroko harremanaren eta helduen artean sortzen diren harremanen arteko desberdintasuna honakoan datza: aurrenekoan, haurtxoa da zaindua, menpekoa da, ez du autonomiarik; bigarrean, berriz, elkarren artekoa da zaintza, bata bilakatzen da bestearen atxikimendu-irudi eta zaintzaile, eta alderantziz.

Bizitza osoan zehar behar ditugu atxikimendu-irudiak, gure konfiantza osoa duten pertsonak, babestu, zaindu eta maitatzen gaituztenak. Era berean, beste batzuen atxikimendu-irudi izateko prest egon behar dugu; erreferentzia, babesle eta zaintzaile izateko prest, alegia. Oreka pertsonalak zerikusi zuzena du gure autonomia pertsonala garatzen dugun bitartean maite ditugun eta maite gaituzten pertsonen beharrea ere bagaudela onartzearekin.

Ez da beharrezkoa atzerapena duten pertsonengan ere atxikimendu afektiboa berdin-berdin sortzen dela esatea. Izaki ororen oinarrizko beharra da maitatua eta babestua sentitzea. Segurtasun-sentimendu hori atxikimendu afektiboaren prozesuan sortzen denez, aurreneko etapa honetan aparteko garrantzia du segurtasun afektiboa indartu dezakeen oro transmititzeak.

Atzerapena duten pertsonen kasuan, auzitan jartzen dena etorkizunean lortu ahal izango duten autonomia-maila da. Pertsona bakoitzaren ahalmen potentzialen arabera izango da emaitza, eta ahalmen horiek garatzen diren bitartean baloratu ahal izango da zenbaterainokoak izango diren. Esperientziak diosku atzerapena duten hainbat pertsona independente eta euren buruen jabe izan daitezkeela, autonomo. Maitatzeko eta maitatuak izateko gai izan daitezke, erreferentziako pertsonak eduki ditzakete, baita

ser de muchos tipos, desasosiego, miedo, irritabilidad, hambre, dolor, inseguridad, etc. La figura de apego debe conocer bien las señales de demanda del bebé y responder en consecuencia. Vemos que se establece una relación en la que el bebé es el "cuidado" y la figura de apego la "cuidadora".

En términos psicológicos esta relación inicial es muy importante porque en este momento se forja la "seguridad básica" necesaria para el desarrollo posterior, para la exploración del mundo, para el logro de la autonomía personal.

Si nos fijamos, la relación que se produce entre el bebé y la figura de apego es el prototipo de lo que popularmente entendemos por "amor". Amar es querer, es cuidar en definitiva. La diferencia entre la relación en la infancia y la relación entre los adultos consiste en que en la primera el bebe es el cuidado, depende, no tiene autonomía, mientras que en la segunda, el cuidado es mutuo, cada persona se convierte en figura de apego, en el cuidador de la otra persona.

A lo largo de toda nuestra vida necesitamos figuras de apego, personas en las que confiar, que nos protejan, que nos cuiden, que nos quieran. También tenemos que estar dispuestos a ser figuras de apego para otros, ser referencia, aportar apoyo, a ser cuidadores. El equilibrio personal tiene que ver con el reconocimiento de que dependemos de las personas a las que queremos y nos quieren, al tiempo que necesitamos desarrollar nuestra propia autonomía personal.

No es necesario decir que la vinculación afectiva se establece de la misma manera en personas con deficiencia. Todo ser humano tiene la necesidad básica de sentirse querido y protegido. Este sentimiento de seguridad se produce en el proceso de vinculación afectiva, de aquí la importancia de transmitir en esta primera etapa, todo lo que potencie la seguridad afectiva.

Lo que se pone en cuestión en las personas con deficiencia es el grado de autonomía que podrán alcanzar en el futuro. Todo dependerá de sus capacidades potenciales, y es a lo largo de su desarrollo donde se podrán ir valorando. La experiencia nos dice que algunas personas con deficiencia pueden llegar a ser independientes y autónomas, pueden querer, sentirse queridas, tener personas de referencia, e incluso tener pareja. Otras podrán establecer sus vínculos afectivos en su grupo natural, residencia, trabajo, familia. Otras

bikotekidea ere. Beste hainbatek euren talde naturalean hedatuko dituzte atxikimendu afektiboak: bizitokian, lanean, familian... Atzerapen sakonagoa duten pertsonak, berriz, autonomia urriagoa izango dute, zaintza handiagoak beharko dituzte. Guztiek ere, beste edonork bezala, euren oinarritzko premiak asebate beharko dituzte.

## Zein dira pertsonen oinarritzko premiak?

Behar ugari dauzkagu izakiok, eta horietako asko artifizialki sortu dira, kontsumo-gizartearen ondorioz. Hala eta guztiz ere, hiru premia oinarritzko nabarmenduko ditugu:

**Nork maitatu eta nor maitatu izatearen beharra.** Maitatzen eta zaintzen gaituzten pertsonenganako atxikimenduaren beharra dugu. Atxikimendu horrek, hain zuzen, pertsona gisa hazteko behar dugun oinarritzko segurtasuna lortzea ahalbidetzen digu. Oso hurbilekoak ditugun erreferentziatzko pertsonak behar ditugu, gure segurtasunaren oinarri eta babesleku izan daitezzen. Guretzat horren garrantzitsuak diren pertsonak gure amak dira, gurasoak, familia, bikotekideak, lagunak. Bizitzan aurrera egin ahala, pertsona horiek duten garrantzia aldatzen joaten da.

Premia hori ez asebetetzeak bakardade sentimendua sorraraz dezake.

**Asetze erotikoaren beharra.** Giza izaeraren zati da desira erotikoa. Harreman fisikoaren beharra, edonolakoa dela ere, onetsi, ulertu eta erregulatu egin behar da, hori asebate ahal izateko. Arestian aipatu dugun bezala, premia aldatu egiten da pertsona batetik bestera, baita hori asebetetzeko modua ere.

Premia hori ez asebetetzeak sexu-frustrazio maila desberdinak sor ditzake.

**Bere barruan hartzen gaituen sare sozial bateko kide garela sentitzeko beharra.** Gure inguruko, koadrilako, auzoko, herriko edota herrialdeko kide garela sentitzea oinarritzko premia da.

Premia hori ez asebetetzeak gizarte-bazterketa eta -bakardade sentimenduak sorraraz ditzake.

personas con deficiencias más profundas, poseerán menor autonomía, necesitarán mayores cuidados. Todas ellas necesitarán, como cualquier persona, cubrir sus necesidades básicas.

## ¿Cuáles son las necesidades básicas de las personas?

Los seres humanos tenemos muchas necesidades, gran parte de ellas creadas artificialmente como fruto de la sociedad de consumo. No obstante destacaremos tres necesidades básicas.

**Necesidad de sentirnos queridos y tener a quien querer.** Necesitamos vincularnos a personas que nos quieran y nos cuiden. Esta vinculación nos permite adquirir la seguridad básica necesaria para poder crecer como personas. Necesitamos tener personas muy próximas de referencia que sean para nosotros la base de seguridad y el puerto de refugio. Estas personas tan importantes para nosotros son nuestras madres, nuestros padres, nuestra familia, nuestras parejas, nuestros amigos. Estas personas van variando en importancia a lo largo de nuestra vida.

La falta de satisfacción de esta necesidad puede producir sentimientos de soledad.

**Necesidad de satisfacción erótica.** El deseo erótico forma parte de la naturaleza humana. La necesidad de contacto físico en sus diversas formas debe ser reconocido, comprendido y regulado de cara a su satisfacción. Como decíamos anteriormente esta necesidad varía de una persona a otra, así como los modos de satisfacción.

La falta de satisfacción de esta necesidad puede producir diversos grados de frustración sexual.

**Necesidad de sentirnos pertenecientes a una red social que nos acoja.** El sentimiento de pertenencia a nuestro medio, a la cuadrilla, al barrio, al pueblo, al país, se constituye en una necesidad básica.

La falta de satisfacción de esta necesidad puede producir sentimientos de exclusión y soledad social.

**Behar horietako bakar bat ere ez zaie arrotz atzerapena duten pertsoneri.** Gehienaz ere, modu desberdinetan eman daitezke aditzera, eta tutore eta hezitzaileei dagokie hori interpretatzea.

## Zer da sexualitatea?

Emakumezko edo gizonezko izateko dugun moduarekin zerikusia duen oro da sexualitatea. Esan dezagun, lehenik eta behin, emakumezko edo gizonezko izateko modu asko daudela, pertsonak bezainbeste. Hortaz, sexualitateari **IDENTITATE**arekin du zerikusia. Giza sexualitatearen ezaugarrietako bat, hain zuzen, aniztasuna da.

Adierazpen hori ulertzeko, honako galdera hauek egin ditzakegu:

**Zer naiz ni? Erantzuna erraza da: Ni neu naiz, emakumezkoa edo gizonezkoa naizen neroni.**

**Nola naiz emakumezko edo gizonezko? Erantzuna ez da aurrekoa bezain erraza. Gure buruari zein gainerakoei, emakumezko edo gizonezko izateko dugun modua adierazi beharko genieke: nolakoak garen, zein ezaugarri ditugun, zein diren gure joerak, nortasuna eta balioak.**

Sexu-heziketak emakumezko edo gizonezko izateko modu pertsonala aurkitzen lagundu behar die pertsoneri.

Identitatea gorputz sexuatuan oinarritzen da. Horrenbestez, sexualitatearen zati dira gorputzaren deskubrimendua, ezagutza eta zainketa, zein besteen gorputzen ezagutza.

Sexualitatearen -hau da, emakumezko edo gizonezko izateko era propioaren- funtsezko dimentsioetako bat **DESIRA EROTIKOA DA**. Plazerra bilatzera eta gorputzen arteko kontaktura bultzatzen gaituen indarra da. Desira erotikoa oinarrizko emozioa da, fantasietan adierazten da eta ageriko portaera sexualak bultzatzeko joera ere badu, autoerotikoak (masturbazioa) nahiz partekatuak. Desira erotikoa naturaltasun osoz txertatu behar da nortasunean, gizakiaren aberastasunetako bat baita.

**Ninguna de estas tres necesidades básicas es ajena a las personas con discapacidad.** En todo caso, pueden expresarse de diferentes maneras que sus tutores y educadores deben saber interpretar.

## ¿Qué es la sexualidad?

La sexualidad es todo aquello que tiene que ver con el modo en que somos mujeres u hombres. De inmediato tenemos que decir que hay tantas formas de ser mujer u hombre como personas somos. Por tanto la sexualidad tiene que ver con la **IDENTIDAD**. Una de las características de la sexualidad humana es su gran diversidad.

Para comprender tal afirmación podemos plantearnos las siguientes preguntas:

**¿Qué soy? Responderemos fácilmente: Yo soy yo que soy mujer u hombre.**

**¿Cómo soy mujer u hombre? La respuesta ya no es tan fácil. Tendríamos que explicarnos a nosotros mismos y a los demás cómo es mi modo de ser mujer u hombre, mi manera de ser, mis cualidades, mis tendencias, mi personalidad, mis valores.**

La educación sexual debe ayudar a las personas a encontrar la manera personal de ser mujer u hombre.

La identidad se asienta en el cuerpo sexuado. Por tanto, el descubrimiento del cuerpo y su conocimiento, sus cuidados, el conocimiento del cuerpo de los demás, forma parte de la sexualidad.

Una dimensión esencial de la sexualidad, es decir, de la manera propia de ser mujer u hombre, es el **DESEO EROTICO**. Es el impulso que nos mueve a la búsqueda de placer, al contacto corporal. El deseo erótico es una emoción básica que se expresa en fantasías, tiende a producir comportamientos sexuales explícitos, bien autoeróticos (masturbación), bien compartidos. El deseo erótico debe integrarse en el conjunto de la personalidad, de una manera natural como una de las riquezas del ser humano.

Guztiz pertsonala eta askotarikoa da desira erotikoa asebetetzeko modua. Asetze beharra, alegia, ez da berdina pertsona guztientzat. Asetze partekatua askatasun pertsonalean eta elkarren arteko adostasunean oinarritu behar da. Desira sexuala asebetetzea, dena den, ez da derrigorrezkoa. Pertsona batzuek sentitzen dute desira hori, eta ase egin behar dute; beste batzuek, besterik gabe, ez dute horrelako desirarik sentitzen.

## Zer da heziketa afektibo-sexuala?

Heziketa afektibo-sexuala estrategia multzo bat da, pertsonen gizartean kokatzen laguntzen diena, norberak emakumezko edo gizonzko izateko duen modu pertsonalaren arabera. Eta horrek honako hau esan nahi du:

**Pertsonen, gorputz sexuatutik abiatuta, beraien identitate sexual propioa ezagutzen eta ulertzen laguntzea.** Berdintasunezko harremanak finkatuz, pertsonen norberak duen emakumezko edo gizonzko izateko modua aurkitzen laguntzea. Izan ere, emakumezko edo gizonzko izateko era asko daude. Gizonzko oso "maskulinoa" gizonzko oso "andre-antzekoa" bezain gizona da. Emakumezko oso "gizon-antzekoa" emakumezko oso "femeninoa" bezain emakumea da. Emakumezko edo gizonzko homosekualak ez diote emakumezko edo gizonzko izateari uzten beraien desiraren orientazioagatik. Emakumezko edo gizonzko izateko era guzti horiek giza sexualitatearen aniztasunaren eta malgutasunaren isla dira.

**Pertsonen beraien desira erotikoa ulertzen, aurkitzen eta erregulatzen laguntzea.** Esperientzia erotikora modu naturalean, beldurrik eta mehatxurik gabe heltzeko behar diren elementuak eskuratzen laguntzea, bestearikiko errespetua transmitituz betiere.

**Pertsonen sentimenduak adierazten laguntzea,** baita segurtasuna eta babesa ekarriko dieten pertsona esanguratsuenekin harreman afektiboak finkatzen laguntzea ere. Finean, maitatuak izateko eta nor maitatu izateko aukerak eskaintzea.

Pertsonen, bakoitzari bere gaitasunen arabera, bizitzaren etapa desberdinetan **oinarrizko premiak asebetetzeko beharko dituzten abildadeak lortzen laguntzea.**

El modo de satisfacer el deseo erótico es muy personal y diverso. La necesidad de satisfacción varía entre las personas. La satisfacción compartida debe basarse en el respeto a la libertad personal y al mutuo consentimiento. La satisfacción del deseo sexual no es obligatoria. Algunas personas lo sienten y necesitan su satisfacción, otras, simplemente, no lo sentirán.

## ¿Qué es la educación afectivo-sexual?

La educación afectivo-sexual es un conjunto de estrategias encaminadas a ayudar a las personas a que se sitúen en la sociedad según su manera propia de ser mujeres u hombres, lo cual significa:

**Ayudar a las personas a que conozcan y comprendan su propia identidad sexual a partir de su cuerpo sexuado.** Ayudar a las personas a descubrir su modo de ser mujer u hombre estableciendo relaciones de igualdad. Hay muchos modos de ser mujer u hombre. Un hombre muy "masculino" es tan hombre como uno muy "afeminado". Una mujer muy "hombruna" es tan mujer como una muy "femenina". Una mujer o un hombre homosexual, no dejan de ser mujer u hombre por su orientación del deseo. Todas estas formas demuestran la diversidad y flexibilidad de la sexualidad humana.

**Ayudar a las personas a comprender, descubrir y regular el deseo erótico.** Ayudar a las personas a adquirir los elementos necesarios para acceder a la experiencia erótica de forma natural, sin miedos o amenazas. Transmitir siempre el respeto al otro

**Ayudar a las personas a que puedan expresar sus sentimientos,** a establecer vínculos afectivos con las personas más significativas, que les aporten seguridad y protección. En definitiva, a facilitar oportunidades para que se sientan queridos y tengan a quién querer.

**Ayudar a las personas a adquirir las habilidades necesarias** para, en la medida de sus posibilidades, satisfacer sus necesidades básicas, a lo largo de las etapas de la vida.

## Nola lagundu gure seme-alabei?


Ikusi dugu, oinarrizko mailan bada ere, zer diren sexualitatea eta afektibitatea, eta zein diren pertsonen oinarrizko premiak. Teorian oso erraza ematen du, baina gauzak konplikatuagoak izan ohi dira praktikan. Hala eta guztiz ere, gure asmoa gure seme-alabei sexualitatearen eta afektibitatearen alorlean modu ahalik eta egokienean laguntzea da.


Ondoren, argitalpen honen prestakuntzan parte hartu duten hainbat gurasoren iritzia jasoko ditugu.

**"Atzerapen psikikoak dituzten senitartekoen sexualitatea antsietatea eta kezka sorrarazten digun arazoa da".**

**"Egin behar dugun aurreneko lana hori horrela dela onartzea da eta, ondoren, ulertu behar dugu ez dela jada gaudituta ditugun eta urteen poderioz atzean geratu diren beste arazo batzuk baino larriagoa eta gaindiezinagoa".**

**"Egoera berriari aurre egiteko orduan, gauzak lasai hartzea da aurreneko gomendioa. Argiago ikusten dira gauzak horrela".**





## ¿Cómo ayudar a nuestras hijas y a nuestros hijos?

Ya hemos visto básicamente qué es la sexualidad, la afectividad y cuáles son las necesidades básicas de las personas. En teoría todo parece muy fácil, pero en la práctica las cosas se complican. Sin embargo, nos proponemos ayudar a nuestras hijas e hijos de la mejor manera posible en el ámbito de su sexualidad y de su afectividad.

Recogemos a continuación opiniones de madres y padres que han participado en la preparación de esta publicación.

**"La sexualidad de nuestros familiares con deficiencias psíquicas es un problema que nos crea ansiedad y preocupación".**

**"Lo primero que debemos hacer es reconocer este hecho y luego comprobar que no es más grave, ni más insuperable que otros que ya hemos superado y han quedado atrás a través de los años".**

**"Para afrontar esta nueva situación, la primera recomendación es la de tranquilizarnos. Las cosas se ven más claras de esta manera".**

Atzerapena duten pertsoneri lagundu ahal izateko, auziak, guri, ansietatea eta kezka sorrarazten digula onartu behar dugu. Horixe da abiapuntua.

**"Gurasook dugun informazioa oso garrantzitsua da. Guk, erantzukizuna geurea denez, ikasi egin behar dugu gai horri buruz, gure mailan bada ere. Horretarako, eskura ditugun baliabide guztiak erabili behar ditugu, profesionalak, liburuak, etab. "**

**"Komunikazioa da hurrengo urratsa, eta horixe da, agian, zailena. Dakiguna transmititzeko gai izan behar dugu".**

**"Gure seme-alabek eginiko aukerak errespetatu behar ditugu. Irakatsi eta lagundu egin behar dugu, inposatu gabe, muturreko egoeretan izan ezik".**

Informazioaren, komunikazioaren eta errespetuaren esparruetan egiteko garrantzitsua dugula egiaztatzea funtsezkoa da gure esku-hartzean.

## ■ ■ Zergatik egiten zaigu horren zaila sexualitatearen inguruko gaiari aurre egitea? Zein dira gure mugak?

Azken hiru hamarkadetan gure gizarteak aurrerapauso handiak egin baditu ere, sexualitateak, oro har, gai konprometitua izaten jarraitzen du. Zein dira horren arrazoi nagusiak?

**Helduek jaso duten sexu-heziketa.** Komenigarria da helduok gure aurreneko esperientzia sexualak, gure zalantzak eta gure emozioak gogoratzea. Komenigarria da, halaber, gure heziketaren une sentikorrenetan -haurtzaroan eta nerabezaroan- sexualitatea nola lantzen zen gogoratzea. Sexualitatea isilpera eta sekretupera mugatuta zegoela ikusiko dugu. Gure heziketa sexualerako erabili zen mekanismo nagusietako bat bilakaera sexualari dagozkion emozio naturalen aurrean erruduntasun-sentimenduak barneratzea izan zen. Sexualitatea ezkutatzea, isilaraztea eta espresio txikienera murriztea zen erabiltzen zen metodoa. Hori dela eta, egun helduak garenon belaunaldiok jarrera nagusiki negatiboak ditugu sexualitatearen aurrean, kasurik gehienetan inolako funtsik ez duten beldurrez beteak. Eta horrexek zailtasunak sortzen dizkigu gure zein gure seme-alaben sexualitatearen ulermenari modu ireki eta koherentean aurre

Éste es el punto de partida para poder ayudar a las personas con deficiencia: Reconocer que es un problema para nosotros que nos crea ansiedad y preocupación

**"La información que los padres tenemos es clave. Nosotros, que somos los responsables, tenemos que aprender a nuestro nivel sobre esta materia. Para ello es necesario utilizar los recursos a nuestro alcance como son los profesionales, los libros, etc."**

**"La comunicación es el paso siguiente, quizás el más difícil. Debemos ser capaces de transmitir lo que sabemos"**

**"Es necesario respetar las opciones de nuestros hijos o hijas. Debemos enseñar y ayudar, no imponer, salvo en situaciones extremas"**

La constatación de que tenemos un papel importante en estos aspectos de la información, la comunicación y el respeto, es esencial en nuestra intervención.

## ■ ■ **¿Por qué nos resulta tan difícil abordar el tema de la sexualidad? ¿Cuáles son nuestras limitaciones?**

Aunque nuestra sociedad haya evolucionado considerablemente en las últimas tres décadas, la sexualidad, en general, sigue siendo un tema comprometido. ¿Cuáles son las principales razones?

**El tipo de educación sexual que hemos recibido los adultos.** Conviene que los adultos recordemos nuestras primeras experiencias sexuales, nuestras dudas, nuestras emociones. Conviene que recordemos cómo se trataba la sexualidad, en los momentos más sensibles de nuestra formación, en nuestra infancia, en nuestra adolescencia. Comprobaremos cómo la sexualidad estuvo reducida al secreto, al silencio. Uno de los mecanismos fundamentales que se utilizó en nuestra educación sexual fue la interiorización de los sentimientos de culpa, ante las emociones naturales propias de la evolución sexual. La ocultación, el silenciamiento y la reducción de la sexualidad a su mínima expresión fue el método utilizado. Por eso las generaciones actuales de adultos, mantenemos unas actitudes más bien negativas, repletas de miedos, muchos de ellos infundados, que nos crean dificultades para afrontar abierta y coheren-

egiteko orduan. Hona zer dioen ama batek gaiari buruz

**"Nire semearekin sexualitatearekin zerikusia duen zerbaiti buruz hitz egiten saiatzen naizen bakoitzean, dar-dar egiten dut. Zailagoa da niretzat harentzat baino".**

**Sexualitateak pertsonen atal intimo eta sentiberenei eragiten die, zaurgarriago sentitzen garen atalei alegia.** Ziur aski, gure sexu-heziketa eta alor honetan izan genuen ikasketa baldintza oso negatiboetan burutu zen, eta baliteke horrexek gugan beldurrak, zalantzak eta segurtasun eza sorraraztea. Erraza da, hortaz, arazoa gugan egotea gure seme-alabengan baino areago. Erraza da, halaber, gure joera geure zailtasun eta mugak beraiengan proiektatzea izatea.

## ■ ■ Zer egin dezakegu horren aurrean?

Lehenik eta behin, muga pertsonal horiek onartu. Kontua ez da berriro errudun sentitzea, sexualitatea era guztiz desegokian landu zuen une historiko jakin bat bizi izan duten belaunaldietako kide garela onartzea baizik. Gure historiaren seme-alaba garela ulertu behar dugu, geure burua ulertu behar dugu, gure beldur eta segurtasun ezak seme-alabengan proiektatu gabe.

Bigarrenik, gure buruak ulertu nahi horretan, seme-alaben inguruko esku-hartzea oztopatzen duten beldur irrazionalen jatorria zehazten saiatu behar dugu. Esate baterako, sexualitatearekin zerikusia duen galderaren bat egiten digutenean (zer da masturbazioa, zer da amodioa egitea), estutasuna izan ohi da nagusi gehienetan. Egoera horietan, **"Zer ari zait gertatzen horrelako ziurtasun-gabezia nabaritzeko?"** galdetu beharko genioke gure buruari **"zein zaila den sexualitatearen kontu hau"** pentsatu aurretik.

temente la comprensión de la sexualidad, tanto la nuestra propia, como la de nuestros hijos e hijas. Así lo explica una madre:

**"Cada vez que me propongo hablar con mi hijo de algo relacionado con la sexualidad, me pongo a temblar. Es más difícil para mí que para él".**

**La sexualidad afecta a las áreas más íntimas y sensibles dónde las personas nos sentimos más vulnerables.** Como nuestra educación sexual, el aprendizaje en este ámbito, probablemente se hizo en condiciones muy negativas, este hecho ha podido generar en nosotros miedos, dudas e inseguridad. Es fácil, por tanto, que el problema esté más en nosotros que en nuestros hijos. Es fácil también que tendamos a proyectar en ellos nuestras propias dificultades y limitaciones.

## ■ ■ ¿Qué podemos hacer ante estos hechos?

En primer lugar, reconocer estas limitaciones personales. No se trata de sentirnos nuevamente culpables, sino aceptar que formamos parte de unas generaciones que han vivido un momento histórico determinado, caracterizado por un pésimo tratamiento de la sexualidad. Se trata de comprender que somos hijos de nuestra propia historia, de comprendernos a nosotros mismos, tratando de no proyectar nuestros miedos e inseguridades a nuestros hijos.

En segundo lugar, en este ánimo de comprendernos a nosotros mismos, debemos tratar de localizar los miedos irracionales que dificultan la intervención con nuestros hijos. Por ejemplo, cuando nos hacen alguna pregunta referida a la sexualidad (qué es la masturbación, qué es hacer el amor), se suele tener la tendencia a sentir un gran apuro. En esta situación la pregunta que deberíamos hacernos es la siguiente: **"¿Qué me está pasando para sentir esta fuerte inseguridad?"**, antes de pensar en: **"Qué difícil es esto de la sexualidad"..**

## Zein dira kezkak nagusiak?

Ondoren bildu diren kezkak aipatu zituzten seme-alaben sexualitatearen inguruko lanean parte hartu zuten gurasoek:

### ■ ■ Etorkizuneko jarduera sexuala

Gurasoen kezka nagusietakoa seme-alabek alor guztietan izango duten etorkizuna da, pertsonen arteko harremanen alorra barne, noski. Eta, alor horretan, galdera nagusia honakoa da: "Nolakoa izango da gure seme-alabek etorkizunean izango duten jarduera sexuala? ".

Erantzuna pertsona bakoitzaren ezaugarrien araberakoa izango da. Atzerapen-mailak mugak ezar ditzake. Amaren batzuk uste zuten euren semeek beste edozeinek bezalakoxe harremanak izan litzaketela.

**"Nire helburu nagusia bizimodu ahalik eta normalena izan dezan lortzea da, dena barne, baita sexu-harremanak ere, inolako traumarik nozitu gabe".**



## ¿Cuáles son las principales preocupaciones?

Las madres y padres que trabajaron sobre la sexualidad de sus hijos e hijas expresaron las siguientes:

### ■ ■ La actividad sexual en el futuro

Una de sus preocupaciones mayores consiste en cuál será su futuro en todos los ámbitos, por supuesto también en el de las relaciones interpersonales. En este sentido se preguntan "¿Cómo será la actividad sexual que nuestros hijos e hijas podrán tener en el futuro?"

La respuesta dependerá de las características de cada persona. El grado de deficiencia puede establecer límites. Algunas madres consideraban que su hijo podría tener relaciones como cualquier otra persona.

**"Mi mayor objetivo consiste en que consiga llevar una vida lo más normal posible, incluyendo todo, también las relaciones sexuales, sin que se sienta traumatizado".**

Beste guraso batzuek, berriz, seme-alabak esperientzia erotikokoak izateko gai izango direla uste zuten, baina mugatuak betiere.

**"Alabak bikotekide baten alboan irudikatzen du etorkizuna. Zaila iruditzen zaigun arren, ez dugu uste zentzugabekeria denik".**

**"Zaila iruditzen zait etorkizunean sexu bereko pertsonekin harremanak eduki ahal izatea".**

Naturaltasun osoz onartu zuten beste guraso batzuek seme-alabek harreman partekatuak finkatu ahal izateko zailtasun handiak izatea.

**"Nire semeak naturaltasun osoz integratu du masturbazioa. Guk (fami­liak) erabat errespetatzen dugu bere intimitatea. Uste dugu etorkizunean horixe izango dela erotismoa bizitzeko izango duen modua".**

Beste batzuek diote ahaleginak egin dituztela sexualitateaz mintzatzeko, baina semeak edo alabak ez duela erotismoari buruzko batere interesik.

**"Ez du inolako portaera behagarri­rik, ez da mintzatzen, eta ez du gaiari buruzko galderarik egiten".**

**"Gaiari buruz hitz egiten edo zerbait erakusten saiatzen banaiz ere, berak ez du batere interesik adierazten. Hala eta guztiz ere, lasai dago, ez dirudi gaiak kezkatzen duenik".**

Zintzotasun osoz, honakoa onartu zuten zenbait gurasok:

**"Gaia planteatu ere ez genuen egiten. Egia esateko, ikaratu egiten gaitu pentsatze hutsak, nahiago dugu aukera bera ukatzea. Beste guraso batzuekin hitz egin ondoren, ordea, kontzientzia hartu dugu. Ezin dugu esan orain erraza gertatzen zaigunik, baina lehen bezain izugarria ere ez zaigu iruditzen gaia. Bere sexualitateari dagokionez gure alabak garatu nahi edo ahal duenaren aurrean, jarrera irekia izango dugu. Ziur aski, guk ere beharko dugu laguntza".**

Seme-alabengan ikusitako portaeren berri eman zioten elkarri gurasoek. Honakoak izan ziren garrantzitsuenak: nor­k bere burua ferekatzea, masturbazioa,

Otros padres pensaban que sus hijos podrían llegar a incluir en sus vidas experiencias eróticas pero con limitaciones.

**"Ella se plantea el futuro viviendo en pareja. Aunque nos parece difícil, no nos parece descabellado".**

**"Veo difícil que pueda relacionarse con personas del mismo sexo en el futuro".**

Algunos padres o madres veían con naturalidad que sus hijos o hijas tendrían serias dificultades para establecer relaciones compartidas.

**"Mi hijo ha integrado la masturbación con toda naturalidad. Nosotros (la familia) respetamos su intimidad. Creemos que ésa será su manera de vivir el erotismo en el futuro"**

Otros consideran que han hecho lo posible por abordar el tema de la sexualidad, pero que su hijo no muestra ningún interés por lo erótico.

**"No manifiesta ningún comportamiento observable, ni habla, ni pregunta nada sobre el tema".**

**"Por más que intento hablar del tema o enseñarle cosas no muestra ningún interés. Sin embargo está tranquilo, no parece que le preocupe".**

Algunos padres, con gran sinceridad, reconocieron:

**"Nunca nos lo habíamos planteado, en realidad nos da mucho miedo pensar en ello, preferimos negar tal posibilidad. Lo que nos ha pasado es que, hablando con otros padres, hemos tomado conciencia. Ahora no vamos a decir que nos resulta fácil, pero tampoco nos parece tan tremendo este asunto. Estaremos abiertos a lo que nuestra hija quiera o pueda desarrollar en su sexualidad. Probablemente nosotros también necesitaremos ayuda".**

Las madres y los padres pusieron en común los comportamientos observados en sus hijos e hijas. Esos fueron los más importantes: Caricias a sí mismo, masturbación, comportamientos de cariño: **"Le gusta que le agarren**

maitasunezko portaerak: **"Oso gogoko du eskutik heltzea, musuak eta laztanak jasotzea. Oso ondo hartzen ditu maitasun-adierazpen guztiak". "Maitekorra da, eta ez ditu urri ematen musuak eta besarkadak, maiz indar gehiegirekin ere bai..."**.

Beste portaera batzuk ere antzeman ziren: **"Fantasiak ditu, atsegin zaizkio neskak, poesiak eta eskutizak idazten ditu". "Bera bezalako lagun bat gonbidatzen du gelara, eta sexu-jokoak egiten dituzte ohean"**.

Beste guraso batzuek diote seme-alabengan ez dutela inolako portaera sexual espliziturik ikusi: **"Nahiko gaztea da oraindik, eta ez diot nabarmentzeko moduko portaera sexualik antzeman. Esango nuke oraintxe ari dela ernatzen". "Ez du sekula galdetzen, telebistako gaiak irensten ditu". "Ez da maitekorra, kontaktuari ihes egiten dio"**.

Ikusi dugunez, atzerapena duten pertsonengan aniztasuna da nagusi, inguruan dituzten gainerako pertsonengan bezalatsu. Batzuek interesa eta jarduera esplizitua adierazten dute, euren buruenganako (masturbazioa) zein besteenganako, desiraren orientazio desberdinetatik abiatuta (hetero/homosexuala). Jarrera pedagogiko koherenteena positiboia izatea eta adierazpen horien aurrean jarrera irekia edukitzea da. Behatu, ulertu eta lagundu. Ez da ezer eskatu behar, ez da aurrez finkatutako helbururik erdietsi behar. Felix Lópezek esan bezala, alor guztietan eman dezaketen onena garatzen utzi behar zaie, baita sexualitatearen alorrean ere. Kontua ez da inor bultzatzea, aukerak eskaintzea baizik.

**Portaera** horiek igartzean izan zituzten **sentimenduez** mintzatu ziren gurasoak. Honela laburbil ditzakegu:

Normaltasun-sentsazioa. **"Poz handia hartu nuen, nire semea pertsona normala zela pentsatu nuen". "Nire semea heldutasun fisikora iritsi zela pentsatu nuen, eta normala iruditu zitzaidan". "Neska normal batengan normalak direnak"**.

Harridura, nahasmena. **"Masturbazioaren kontura. Harridura eta lotsa, inoren zein nire lotsa"**.

Beldurra. **"Ez zait axola sexu harremanak izan ditzan baina, hori bai, bitartekoak jarrita eta ondo bereizita. Ez edonorekin". "Beldur naiz helduagoren batek gure alabarekin nahi duena egingo ote duen"**.

de la mano, que le den besos, que le mimen. Es muy receptiva a todo tipo de manifestaciones cariñosas". **"Es cariñoso y no escatima besos ni abrazos, a veces con excesiva fuerza"**

También se observaron otro tipo de comportamientos: **"Tiene fantasías, le gustan las chicas, escribe poesías y cartas". "Invita a un amigo como él a su habitación y se acuestan haciendo juegos sexuales"**.

Otros padres dicen que no han observado ningún comportamiento sexual explícito en sus hijos: **"Todavía es bastante joven y no he observado comportamientos sexuales para reseñar. Yo diría que es ahora cuando está despertando". "Nunca pregunta, absorbe temas de televisión". "No es afectuoso, evita el contacto"**.

Como vemos, las personas con deficiencia muestran la misma diversidad que el conjunto de personas que les rodean. Algunos muestran interés y actividad explícita hacia sí mismos/as (masturbación), hacia los demás y desde distintas orientaciones del deseo (hetero/homosexualidad). La postura educativa más coherente es estar abiertos desde una actitud positiva. Observar, comprender y ayudar. No se trata de exigir nada, ni de alcanzar ningún objetivo preestablecido. Se trata, como diría Félix López, de permitirles que desarrollen la mejor posibilidad de sí mismos en todos los ámbitos, también en el de su sexualidad. No se trata de empujar a nadie, sino de ofrecerles oportunidades.

Los padres hablaron de sus **sentimientos** cuando observaron estos **comportamientos**. Los podemos resumir de esta manera.

Sensación de normalidad. **"Me hizo ilusión, pensé que mi hijo es una persona normal". "Pensé que mi hijo ya se había hecho adulto físicamente y me pareció normal". "Los normales en una chica normal"**.

Sorpresa, desconcierto. **"Por lo de la masturbación. Sorpresa y vergüenza ajena y propia"**.

Miedo. **"No me importa que mantenga relaciones sexuales, pero, eso sí, poniendo medios y diferenciando. No con cualquiera". "Miedo a que un mayor haga lo que quiera con ella"**.

Inquietud y preocupación. **"Como todavía son escasos los comportamientos... Pero no sé si sabré estar a la altura y responder adecuadamente y**

Larritasuna eta kezka. **"Portaera horiek oraindik ere urriak direnez... Ez dakit, ordea, maila emango ote dudan eta erantzun egokia -batik bat, naturala- emango ote didan". "Agian beste pertsona mindu dezakeela pentsatzeak kezkatzen nau". "Larritasuna". "Mindu egiten gaitu, kezkatu... ". "Harreman afektibo-sexualak behar dituela pentsatzeak". "Alde batetik, poztu egiten nau alabak mutil-laguna edukitzeak, baina bestetik kezkatu egiten nau 'noraino helduko diren' jakiteak eta jendaurrean neurria gainditu dezaketela pentsatzeak".**

Ikus dezakegunez, eta zentzuzkoa denez, alabak dituzten gurasoak heldurrago dira portaera sexualen aurrean semeak dituzten gurasoak baino.

Zer nolako jokabide eta jarraibideak dituzte guraso edo tutoreek seme-alaben portaera sexual esplizituen aurrean? Honakoa da guraso taldearen ekarpena.

Errieta egin. **"Egongelan ukitzen-eta zegoenetan, hark begirutzen zionean seko uzten zion ukitzeari. Nik esaten diot ez ukitzeko, usaina hartzen diotela eskuek... ". "Horrelako gauzak txarrak direla esan". "Errieta egiten diogu oso nekagarri jartzen denean eta, batez ere, besarkadetan-eta indar fisikoa kontrolatu dezan".**

Azaldu. **"Masturbazioa portaera intimoa dela azaldu, eta hori bere gelan egitea hobe dela adierazi". "Errespetatu, gaiaz mintzatu, emozioei eta beste gauza batzuei izena jarri". "Esan berak egiten duena ondo eginda dagoela baina, betiere, toki intimoan egin behar duela".**

Segurtasun-gabezia halakoa adierazten duten erreakzioak ere izan zituzten gurasoek: **"Komunean masturbatzen ari zela entzun nuenean, gau on esan eta ahalik eta azkarren irten nintzen". "Frustrazio sexualari lotutako amorrua Igarri didanean, lasaitzen saiatu naiz". "Bakean utzi, mutil-laguna behar duela esan".**

## ■ ■ Bizitza afektiboa

Afektibitatearen alorrean, honako kezka azaldu zituzten gurasoek:

Elkarrekikotasun gabezia, sufrimendu emozionala izan dezakeela pentsatzea, ematen duenaren ordainetan beste horrenbeste ez jasotzea.

sobre todo con naturalidad". "De que igual está molestando a la otra persona". "Angustia". "Nos duele, nos preocupa...". "Pensar que necesita relaciones afectivo-sexuales". "Por una parte alegría porque mi hija tenga novio, pero por otra preocupación por saber 'hasta dónde llegan', y que no se excedan en público".

Como vemos, y como resulta muy razonable, los padres de hijas muestran más miedos ante los comportamientos sexuales que los padres de hijos.

¿Qué tipo de acciones, de pautas, emplean los padres o tutores ante los comportamientos sexuales explícitos de sus hijos? Ésta es la aportación del grupo de madres y padres.

Reprender: "Cuando estaba en la sala tocándose, al mirarle él automáticamente dejaba de tocarse. Yo le suelo decir que no se toque que luego le huelen las manos". "Decirle que ese tipo de cosas es malo". "Reprenderle cuando se pone muy pesado y sobre todo para que controle su fuerza física en los achuchones".

Explicar: "Explicarle que la masturbación es un comportamiento íntimo que es mejor que lo haga en su habitación, en su intimidad". "Respetarlo, hablar de ello, poner nombres a emociones y otras cosas". "Enseñarle que está muy bien lo que haga pero siempre en la intimidad".

Las madres y padres también aportaron otro tipo de reacciones que denotan cierta inseguridad: "Cuando oí que se masturbaba en el baño, le di las buenas noches y salí lo antes posible". "Intentar contenerle cuando he observado en él desesperación ligada a la frustración sexual". "Dejarla en paz, comentarle que necesitaría un novio".

## ■ ■ La vida afectiva

En el ámbito de la afectividad las madres y padres plantearon las siguientes preocupaciones:

La falta de reciprocidad, la posibilidad de que sufra emocionalmente, la posibilidad de no ser correspondido.

**"Ikaratu egiten nau harreman afektiboa elkarrenganakoa ez izateak, beste pertsona nire semearen sentimenduez aprobetxatzea"**

Seme-alabak babestu nahirik eta, segur aski, esperientzia pertsonalean oinarrituta, harreman intimoak eragin dezakeen sufrimenduaren inguruko kezka agertzen da.

**"Ez dut nahi maitasuna dela kausa sufritu dezan, nahiz eta segurutik tokatuko zaion".**

Adierazpen hori, ikus dezakezuenetz, nahiko errealista da. Ez da gehiegizko babesera jo behar, atzerapen mailaren bat duten seme-alabak burbuila itxi batean gordeta. Bizitza arazo iturri da eta, ahal den neurrian, arazo horiek konpondu egin behar dira. Norberak egin behar die aurre. Batzuetan, sahiestezina da sufrimendua.

**"Beldurra diot behar bezainbesteko mailarik edo gaitasunik ez duelako sentimendu horiei buruz hitz egiteko gai ez izateari".**

**"Beldurra diot bera bezalakoa ez den neska batez maitemintzeari, eta baita neskaren gurasoek hori gaizki hartzeari ere"**

Alde positiboak:

